

GUZTION AHOTSA- Entzun.Ulertu. Aldatu



Gure webguneak aniztasun funtzionala duten pertsonen (estimatzen da munduko biztanleriaren %15a dutela aniztasun funtzionala) eta haien ingurukoen beharrei erantzuten die, baliabide inklusibo eta eskuragarriak eskainiz. Gizartean oraindik ere zailtasunak daude informazioa, hezkuntza edukiak edo jolasak pertsona guztientzat egokiak izateko, eta guk hutsune hori bete nahi dugu.

Horregaitik, gure orrialdean mota askotako materialak eskaintzen ditugu: liburu sentsozialak eta braillez idatziak, piktogramak, jostailu egokituak eta baliabide didaktiko irigarriak. Guztiak helburu berarekin: haur eta heldu guztiek, euren gaitasun edo behar bereziak edozein direla ere, ikasteko eta jolasteko aukera berdinak izan ditzaten. Gure asmoa da inklusioa eta aniztasuna sustatzea, baliabideak hurbilduz, irigarritasuna erraztuz eta gizarte bidezkoago baten alde ekarpena eginez.

Horretarako, gure enpresa bereizten da liburu sentsozial eta Braille sisteman egindako material inklusiboak sortzeagatik, ikaskuntza eta irigarritasuna uztartzen dituen ikuspegi berritzaile baten bidez. Pertsona guztiontzat pentsatutako produktuak diseinatzen ditugu, bereziki ikusmen urritasuna edo ikaskuntza zailtasunak dituzten pertsonentzat, haien motibazioa, autonomia eta sormena sustatzeko.

Laburbilduz, guztion ahotsa guztiontzat pentsatutako webgune bat da, batez ere urritasunak, zailtasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonen zuzenduta, haien behar eta premia espezifikoak bermatzeko eta asebetetzeko asmoz.